

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren matxoaren 6ko 24/2018 FORU DEKRETUA. Foru dekretu horren bidez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 26ko 6/2016 Foru Dekretua aldatzen da.

I

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 26ko erabaki baten bidez, 6/2016 Foru Dekretua onetsi zen, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duena.

Geroago, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 24ko 97/2016 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen foru dekretu hori, saileko Kontratazio Mahaia kentzeko.

II

Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko atalek betetako eginkizunen bidez metatutako esperientziaren ondorioz, eta dauden baliabideen optimizazioa lortzeko, gomendagarria da atal guztiei eta haien gaineratik dagoen Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuari esleitutako eginkizunak berrantolatzea.

Hori dela eta, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak eskatuta, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren eta haren menpeko bi atalen jardun-eremua berrantolatu da eta, ondorioz, aldatu egin da atal horien izena.

III

Ebaluazioaren, Prestazioen eta Kontrolaren Atalari dagokionez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamenduaren 21. artikuluan arautzen dira haren eginkizunak.

Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak eskatuta, atal honek eginkizun berri hauek bete beharko ditu:

1. Erabiltzaileak zerbitzu hitzartuetan sartzeko prozesua kudeatzea.
2. Gazteei (18-23 urte) laguntza emateko programaren kudeaketa integrala egitea.

Gizarte Inklusiorako Zentro eta Programen Atalari dagokionez, haren eginkizunak 22. artikuluan daude jasota.

Ez da proposatzen eginkizun berriak ematea, baina 22. artikulua berridatzi da, zerbitzuaren erabiltzaileekin esku hartzen duenean, atalak garatu behar dituen eginkizun guztiak behar bezala jasotzeko.

Azkenik, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuari dagokionez, haren eginkizunak 20. artikuluan daude araututa, eta, besteak beste, bere gain hartuko lituzke kontrol-eginkizunak eta zeharkako beste batzuk.

Planteatutako aldaketan ondorioz, aldatu egin behar dira Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko bi atalen izenak, dagozkien eginkizunen xedearen arabera. Hauek dira izen berriak:

1. Ebaluazio eta Orientazio Atala.
2. Esku-hartze Sozialerako Atala.



IV

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, txosten hauek egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Azkenik, 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat, genero-ikuspegia kontuan hartu da hura prestatu eta aplikatzean, eta 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatu da.

V

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.14 artikulua araberak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.

Horrenbestez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko martxoaren 6(e) ko bileran aztertutik, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— *Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa aldatzea. Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko urtarrilaren 26ko 6/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori*

Bat

2. artikulua 2. zenbakia aldatuko da eta honela idatzita geratuko da:

«Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

2.1. Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua

2.1.1. Ebaluazio eta Orientazio Atala.

2.1.2. Esku-hartze Sozialerako Atala.

2.2. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua

2.2.1. Emakumeen Atala».

Bi

4. artikulua 2. zenbakia aldatuko da eta honela idatzita geratuko da:

«Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak, bestalde, bi atal ditu: Ebaluazio eta Orientazio Atala eta Esku-hartze Sozialerako Atala».

Hiru

20. artikulua aldatuko da eta honela idatzita geratuko da:

«Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuari dagokio, oro har, gizarte-zerbitzuei buruzko indarreko araudiak foru-aldundiei gizarte-inklusioaren arloan aitortzen dizkien eginkizunak betetzea.

Zehazki, eginkizun hauek beteko ditu: gizarte-bazterketako egoera ebaluatzea, aitortzea eta haren gradua zehaztea; erabiltzaileei zerbitzu eta prestazio egokienei buruzko



orientazioa ematea, eta inklusioan espezializatutako gizarte-zerbitzuen barruko zerbitzuak kudeatzea (egoitza-zentroak, egoitza ez direnak, prestazioak eta programak).

Aurrekoez gainera, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren eginkizunak dira:

1. Zerbitzuari esleitutako prestazio eta laguntza ekonomikoak arautzen dituzten arauak aztertzea, eta arau horiek egiteko edo aldatzeko proposamena egitea, halakoak kudeatzeko eskumena duen atalaren laguntzarekin.

2. Zerbitzuaren eskumenerako diru-laguntzak izapidetu eta kudeatzea, eta haiek ordaintzeko proposamenak egitea; laguntzon justifikazioa kontrolatzea, eta, hala dagokionean, itzultzeko prozedurari buruzko proposamena egitea eta prozedura izapidetzea.

3. Erakunde maila guztietako gainerako administrazio publikoekin, erakunde publikoekin, pribatuekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko beste zerbitzu eta atal batzuekin elkarlana eta koordinazioa bideratzeko neurriak proposatzea, inklusioaren eremuan eragina duten organismo eta erakundeen arteko koordinazioa bultzatzeko.

4. Pobreziaren eta Gizarte-bazterkeriaren Bizkaiko Behatokia kudeatzea, indarrean dagoen araudiak behatoki horri ematen dizkion eginkizunak betetzea eta haren jarduketak koordinatzea. Zerbitzuari, halaber, behatoki horren idazkaritza-eginkizunak dagozkio.

5. Zerbitzuaren eskumenerako jarduketan gaineko kontrola egitea eta gizarte-zerbitzuen arloan aplikatu beharreko araudia betetzen dela zaintzea.

Ildo horretan, indarrean dagoen araudiak zerbitzu, bakoitzerako ezartzen dituen betekizun material eta funtzionalak betetzen diren egiaztatzea dagokio, baita, hala denean, baldintza horiek betetzen ez dituzten alderdiak, urratutako manuak eta zuzenketarako epea jasotzen dituzten kontrol-txostenak egitea.

6. Kontrol-jardueretan, erakundeei, profesionaleri eta erabiltzailei beren eskubide eta betebeharrei buruzko aholkuak eta informazioa ematea, baita eskubide eta betebeharrak betetzeko bideei buruzkoak ere.

7. Zerbitzua osatzen duten atalen laguntzarekin, diru-laguntzak, laguntzak eta prestazioak kontrolatzea, bai eta hitzarmen, kontratu, itun edo erabakiak betetzen diren ere, eta Sailak halakoak emateko ezarritako helburuak lortzen direla zaintzea.

8. Sailaren eskumenerako gizarte-inklusioaren arloko zehapen-espeditenteak abiarazi eta izapidetzea eta haiek ebazteko proposamena egitea, bereziki, Sailak sinatutako hitzarmen, kontratu, itun eta erabakiak ez betetzearen ondoriozko zehapen-espeditenteen kasuan.

9. Gizarte-inklusioko prozesuei laguntzeko prestazio eta laguntzak kudeatzeko laguntza teknikoak ematea.

10. Zerbitzua osatzen duten atalen laguntzarekin, Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte-bazterketa gaur egun zertan den aztertu, ezagutu eta ikertzea, baita lurraldeko biztanleen beharrianak ere, haien gizarte-inklusioa sustatzeko neurriak bideratzeko.

Analisi horretan, gizarte-bazterketa ebaluatzeko gizarte-bazterketako egoeretan laguntza emateko sistemak aztertuko dira ere.

11. Zerbitzuaren eskumenerako gaiei buruzko xedapen arauemaileak prestatzea eta izapidetzea».

Lau

21. artikulua aldatuko da eta honela idatzita geratuko da:

«1. Ebaluazio eta Orientazio Atalak, oro har, eskatzen duten pertsonen gizarte-bazterketako egoera ebaluatzeko eginkizun teknikoak izango ditu, haien bazterketa-gradua zehazteko eta, haien beharrianen arabera, prestazio egokienetara bideratzeko; horrez gainera, zerbitzu hitzartuetan sartzeko prozesuak kudeatuko ditu.

Halaber, inklusioaren arloko prestazioak eta laguntza ekonomikoak kudeatzea dagokio.



2. Atalak, zehazki, eginkizun hauek beteko ditu:
- a) Oinarrizko gizarte-zerbitzuei laguntza teknika ematea eta haiekin koordinatzea, behar bezala izapidetzeko Sailak atal honen bitartez ebatzi behar dituen gizarte-bazterketako egoera ebaluatzeako eskabideak eta prozedurak.
 - b) Koordinatzea eta lankidetzan aritzea hauekin: (i) mendetasun-egoeren, desgaitasun-egoeren eta adingabekoen edo emakumeen babesgabetasun-egoeren ebaluazioa egiten duten Bizkaiko Foru Aldundiko sailtako administrazio-unitateekin, eta halako egoeraren batean dauden pertsonekin esku hartzen duten unitateekin; (ii) Bizkaiko Tutoretza Erakundearekin; (iii) oinarrizko gizarte-zerbitzuekin; (iv) osasun-sistemarekin, eta (v) beste administrazio publiko batzuen mendekoak edo haiei atxikiak dauden esku-hartze sozialerako erakundeekin. Xedea da interesduna ondo ezagutzea eta ebaluatzea, haren diagnosia egitea eta orientazioa ematea.
 - c) Pertsonen gizarte-bazterketako egoera ebaluatzea, hala eskatzen dutenean. Horretarako, beharrezko azterketak eta elkarrizketak egingo ditu, eta beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatuko die beste zerbitzu eta profesional batzuei.
Bazterketa ebaluatzeako indarrean dagoen tresna tekniko komunarekin eta hura garatzen duen araudiarekin bat egingo da ebaluazioa, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako lurralde historikoekin batera aplikatuko da. Gainera, ofizios edo interesdunak eskatuta berrikusiko ditu dagoeneko ebaluazioa eginda duten pertsonen gizarte-bazterketaren gradua.
 - d) Egoera diagnostikoa zehaztu ondoren, diagnostiko espezializatua egitea pertsonaren beharrianen arabera ibilbide egokienari buruzko proposamenarekin, eta hautemandako beharrianak kontuan hartuta zerbitzu eta prestazio egokienera bideratzea. Diagnostiko horretan, esku-hartzearen intentsitatea eta eskakizun-maila zehaztuko dira ere.
Orientazio horretan, kontuan hartuko da erabiltzailearen iritzia; horretarako aurrez aurreko elkarrizketak erabiliko dira, eta ebaluazio diagnostikoaren emaitza eskura emango zaio erabiltzaileari, nahitaez.
 - e) Egoitza-zerbitzuetan, egoitza ez diren zerbitzuetan, gizarte-inklusiorako programetan eta definituko diren zerbitzu edo programa berrietan sartzeko eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egitea; sartzeko prozedurak kudeatzea, eta zerbitzuen okupazio-zerrendak eta itxarote-zerrendak kudeatzea, mantentzea eta eguneratzea. Aurreko guztia bete baino lehen, zerbitzu horietan sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatuko du. Baldintza horiek indarreko araudian eta lankidetzak hitzarmen, itun eta kontratuan edo zerbitzua arautzen duen beste edozein agiri juridikotan zehaztuko dira.
 - f) Arreta pertsonalizatuko plana sinatzea erabiltzailearekin, hautemandako beharrianak betetzeko Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren esku-hartzea beharrezkoa denean.
 - g) Erakunde laguntzaileei laguntza teknika ematea harrera-eta sarrera-prozesuan.
 - h) Gazteentzako laguntza emateko programaren kudeaketa integralaz arduratzea, bai bazterketa prebenitzeari dagokionez, bai emantzipazio-prozesuetan laguntzeari dagokionez.
 - i) Informazioa eskuragarri egotea, gai honetan eskumena duten herri administrazioen artean komunikazioa egotea eta estatistikak egitea ahalbidetuko duen informazio-sistema bat mantentzea.
 - j) Atalak kudeatutako prozeduretan aurkezten diren erreklamazioen eta errekurtsioen alderdi teknikoiei eta juridikoiei buruzko alde aurreko txostenak egitea, aginduzkoa denean.
 - k) Batzorde teknikoiei laguntza ematea, egin beharreko proposamenak egiteko.



- l) Proposamena egitea oinarrizko beharrianak bete eta inklusio prozesuak sustatzeko laguntza ekonomikoen programak sortzeko eta garatzeko, eta programa horien kudeaketa eta jarraipena egitea, 20. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.
- m) Atalak izapidetutako laguntzei dagokienez, okerreko kobrantzak daudenean edo zenbatekoa okerrekoa denean, itzulketak egiteko prozedurak kudeatzea.”

Bost

22. artikulua aldatuko da eta honela idatzita geratuko da:

«1. Esku-hartze Sozialerako Atalak, oro har, eginkizun hauek izango ditu: bazterketa-egoeran dauden edo, erresistentziarako gaitasuna gutxituta dutenez, baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonen laguntza espezializatua ematea eta pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko eta gizarte-inklusioa ahalbidetzeko neurriak ezartzea eta helburu horiek lortzeko prozesuak koordinatzea.

2. Atalak, zehazki, eginkizun hauek beteko ditu:

- a) Gizarte-inklusioan espezializatutako gizarte-zerbitzuak kudeatzeko lankidetzaz hitzarmenak, itunak eta kontratuak diseinatu eta ezartzea eta haien jarraipen teknikoa egitea. Horrez gainera, haien jarraipen ekonomikoa egiten lagunduko du.
- b) Esku hartzeko eskuliburuak, jarduera egokien eskuliburuak, kalitate-prozesuak eta material, eginkizun eta langileen arloko eskakizunak aztertzea, eta halakoak egiteko edo aldatzeko proposamena egitea.
- c) Bizkaiko Lurralde Historikoan, elkarlanean aritzea eta koordinatzea gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen arazoekin eta tratamenduekin eta pertsona horiei ematen zaien laguntzarekin zerikusia duten beste administrazio publikoekin eta erakunde publiko eta pribatuekin, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako irizpideak bateratzeko, informazioa eta ezagutzak trukatzeko eta eztabaida zein hausnarketarako gune komunak sortzeko.
- d) Erreferentziako profesionalaren eginkizunak betetzea, eta, ondorioz, gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen berriaz laguntzeko Aldundiaren eskumeneko zerbitzu edo programetan artatu diren egoeretan kasuaren koordinazioa bere gain hartzea. Horretarako, hauekin koordinatuko da: aldez aurreko esku-hartzean eginkizun hori bete duen profesionalarekin, kasuaren orientazioaz arduratu diren Ebaluazio eta Orientazio Ataleko profesionalarekin, zerbitzuak emateko erakunde laguntzaileetako langileekin eta erabiltzaileekin esku hartzen duten gainerako arreta-arloekin (hezkuntza, osasuna, tutoretza, etab.).
- e) Aldundiaren eskumeneko gizarte-inklusiorako zerbitzuetan lagundutako diren pertsonen gaiztatutako esku-hartzea ikuskatu eta ebaluatzea, eta, hala dagokionean, zerbitzuak aldatzeko edo zerbitzuz lekualdatzeko proposamenak egitea, pertsona horien beharrianen ondorioz beharrezkoa denean.
- f) Aurreko letran adierazitakoaren ondorioz, erabiltzailearekin sinatutako arreta pertsonalizatutako plana egokitze edo aldatzeko proposamenak egitea, esku-hartze prozesua ondo gauzatzeko beharrezkoa denean.
- g) Egoitza-zerbitzuetan, egoitza ez diren zerbitzuetan eta gizarte-inklusiorako programetan gertatzen diren bajak eta uzteak proposatzea eta izapidetzea.
- h) Ebaluazio eta Orientazio Atalarekin koordinatu eta elkarlanean aritzea, aurretik ebaluazioa eginda, erreferentziako profesional bat duten eta zerbitzu hitzartu baten itzarote-zerrendan dauden erabiltzaileei buruzko informazioa kudeatu, mantendu eta eguneratzeko.
- i) Dauden gabeziak edo beharrianak detektatzea eta epe ertain eta luzera egon daitezkeen beharrianak aurrez ikustea, eta zerbitzuak sortu eta aldatzeko proposamenak egitea, erabiltzaileek dituzten beharrianei modu egokian erantzuteko. Halaber, zerbitzuen sarea hobetzeko edo egokitze proposamenak



egin eta aurkeztuko ditu, erabiltzaileekin esku hartzeko prozesuen ebaluazioan oinarrituta.

- j) Koordinatzea eta lankidetzan aritzea mendekotasun-, desgaitasun- eta babesgabetasun-egoerekin, emakumeekin eta familian esku-hartzearekin lotutako zerbitzuak kudeatzen dituzten Bizkaiko Foru Aldundiko sailetako administrazio-unitateekin.
- k) Atalak kudeatutako prozeduretan aurkezten diren erreklamazioen eta errekurtsoen alderdi teknikoei eta juridikoei buruzko alde aurreko txostenak egitea, aginduzkoa denean.
- l) Batzorde teknikoei laguntza teknikoa ematea, egin beharreko proposamenak egiteko.
- m) Informazioa eskuragarri egotea, gai honetan eskumena duten herri administrazioen artean komunikazioa egotea eta estatistikak egitea ahalbidetuko duen sistema bat mantentzea.»

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. — Indarrean jartzea

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko martxoaren 6an.

Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia
UNAI REMENTERIA MAIZ